

**Confebask-ek ELA eta LAB  
paretik kentzeko legea exijitzen du**

**Confebask golpista**

## Confebask-ek dio...

*“Aski ezaguna da Euskal Herrian nagusi den ELA sindikatuaren estrategia, zeina gainera hirugarren sindikatua, LAB, erakartzen ari den, bien artean ordezkaritza sindikalaren %60 osatuz...”*

## Confebask-ek dio...

*“Boikot dinamika bati ekin diote (arrakastaz) gainerako eragileekin elkarrizketa sozial hori egoterik eta gauzatzerik izan ez dadin ...”*

*“Gogoz saiatzen dira berez ez dagozkien helburuetan [AHT, Fiskalitatea, HEL-ILP]”*

## Confebask-ek dio...

*“Erakundeok nahi duten gauzetan askatasunez jardun daitezke, baina benetan ez dagokien izaera bati esker ez lukete benetan erakunde enpresarial eta sindikal direnen berezko jarduera baldintzatu eta are ezeztatzeko aukerarik izan beharko”*

## Non dio hau Confebask-ek?

- Espainiako gobernuak aurkeztu duen *Borrador de Real Decreto sobre Déposito de Estatutos de las Asociaciones Sindicales y Empresariales*-erako...
- ... zabaldu den alegazio prozesu baterako idatzi duen txosten batean (CEOEk bere egiteko asmoz)

**Confebask-ek tramite hau baliatu nahi du  
ELA eta LAB sindikatu gisa  
ezabatzeko mekanismo bat ezar dadin**

## ELAren ustez Confebask-ek...

- Oreka jakin batzuk eta kohesio soziala dituen gizarte baten oinarria hondatu nahi du
- Proposamen guztiz antidemokratikoa egiten du
- Nahi du guk sindikatu izaera galtzea, defentsa kolektibo antolaturik gabe indartsuago delako
- Frankismora itzularazi nahi gaitu
- PP-ri eskatzen dio Euskal Esparrutik ez uzteko ezta berau defendatzen duten sindikaturik ere

## ELAk uste du...

- Klase sindikalismo abertzalearen kontrako eraso honen aurrean...
- ... estrategikoa den ideia honetan jarri behar dela indarra: **klase erakundeen eta ekintza kolektiboaren defentsa**
- Hauxe da legeek patronalari ematen dioten neurrigabeko boterea geldiaraz dezakeen errealitate bakarra
- Erakunde sindikal indartsuak behar ditugu, gobernu eta patronalengandik erabat autonomoak

# Confebask: Estatu guztiko erakunde patronalik erreakzionarioena...

- Eskubide laboral eta sozialen aurkako gurutzada bati ekiteaz gainera
- Ilegalizazioaren zigorra ezarri nahi digu berari aurre egiten diogun erakundeoi
- Astakeria hau oso ongi kalkulatuta dago
- Badakite gobernuan ez dagoela bere nahiak mugatzeko gai izango den inor
- Sindikatu gisa, gai desberdinetan proposamenak egiteko dugun eskubidea ukatu nahi digute [AHT, Fiskalitatea, HEL-ILP]



# Confebask: Estatu guztiko erakunde patronalik erreakzionarioena...

- Kontua ez da gai jakin batzuri buruz aritzea
- Arazoa da patronala eta botere politikoaren kontrako posizioak ditugula
- Disidentzia desagerrarazi nahi dute
- Gobernuen gaineko presioaren monopolioa nahi du, “ate birakari”-ekin lortzen dutena baino gehiago eskuratzeko

## Confebask-ek EJ-ren babesak du...

- Jaurlaritzak, elkarrizketa soziala eratzeko proposamenean, sindikalismoaren eginkizuna “mugatu” nahia azaltzen du
- Bertan dio sindikatuok Jaurlaritzaren gizarte-eredua babesten ez badugu...
- ...litekeena dela zigor ekonomikoak izatea
- Agiri hartan bertan ELA arazo gisa aipatzen zuten elkarrizketa sozialaren aurrean dugun jarreragatik

## Confebask-ek EJ-ren babesak du...

- Patronalak EJ-ren argudio bera erabiltzen du
- Eta behin betiko zigor bat zehaztera ausartzen da:
- **Etsaitzat duena paretik kentzea, sindikatu izaera galaraziaz**
- EJ-k ez du jakitera eman elkarrizketa sozialaren proposamena egiten lagundu zioten “aholkularien” izenik
- Confebaskek oso ordezkari kualifikatuak izan zituen Jaurlaritzaren “aholkulari” talde horretan

# ELAko Baztorde Eragilearen erabakiak

- Espainiako Gobernuari Confebasken proposamena baztertzekeo exijitu
- Askatasun sindikalerako eskubidearen aldeko ekintza kanpaina abiatu, sindikatu guztien babesaren izan beharko lukeena
- Premiazko bi bilera deitu: bata Urkullu Lehendakariarekin, eta bestea, EAJren EBBko buruarekin
- Gure balorazioaren berri emango diegu gainerako alderdi politikoei
- Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu ez dezala “Elkarrizketa Sozialeko mahaia” delakoa eratu
- ELA eta LAB bezalako sindikatuak ezabatu nahi dituen patronal batekin mahai berean jartzea asmo hori babestea da

# Urkullurentzat bi galdera

*Bat al zatoz ELA eta LAB mahai horretara joaten ez bagara sindikatu izaera kentzeko aukerarekin?*

*Prest al zaude Confebaskekin elkarrizketa sozialeko mahai batean esertzera, patronalak hori eskatu duela jakinik?*